

Ingurumenarekiko Konpromisoa

Durangoko Udal Euskaltegitik gure herrialdearen ingurumen iraunkortasunaren alde egiten dugu lan.




Azken urteotan euskaltegiak bilakaera positiboa izan duenez, ikasleek, jasotako zerbitzuarekin satisfazio maila altua erakutsi dute. Gure ustez, garapen ekonomikoa eta ingurumena zaintzea bateragarri egin behar ditugu, gure ikasleek etorkizunean ere satisfazio maila altua izan dezaten eta ingurumena babesteko dugun erantzukizuna bete dezagun. Hori dela eta, **poluzioa prebenitzeko** eta erakundearen eguneroko kudeaketan ingurumena sartzeko konpromisoa hartu dugu; hortaz, ingurumenarekiko jokaera hobetuko dugu egunez egun.

Giza jarduera guztiek bezala, Durangoko Udal Euskaltegiak ingurumenean eragina du, eta, horregatik, konpromisoa hartu dugu gure **ingurumen-alderdi nagusiak** identifikatzeko eta ebaluatzeko eta gure jarduerarekin eta haien funtzioekin lotutako alderdiei buruz **langileak trebatzeko**, sentsibiliza daitezten eta haien lanpostuko portaerak gure konpromisoa islatu dezan.

Ingurumena etengabe hobetzea da, **ingurumen-legeria** betetzeaz gain, gure erronketako bat, eta, horretarako, **alderdi nagusiak murrizteko ingurumen-helburuak, -xedeak eta -programak** zehaztuko eta berrikusiko ditugu.

Prozesu hau, **EKOSCAN** arabera Ingurumen Kudeaketa Sistema baten eremuan garatzen da.

Ingurumen Portaera Adierazleak



Informazio gehiago nahi izanez gero, sistemaren kudeatzailea hau da

Jesus Sarriugarte. Tf: 946030040

euskaltegia@durangoeuskaltegia.net

2018 URTEA

Hobekuntza Plana 2019



Energia kontsumoa murriztu

- Beheko gelako (Berbagunea) energia kontsumoaren kontrola egin
- Eraikinaren ziurtagiri energetikoa atera



Erosketa berdea

- Irizpide berdea duen bulegoko materiala erosi
- Publizitate euskarrietan irizpide berdea duen materialaren erabilera sustatu



Hondakinen sorrera murriztu

- Euskaltegitik kanpora ateratzen diren tramite administratiboetan paperaren erabilera murriztu
- Kafe makinako edalontzi eta makiltxoak konpostagarriak diren beste batzuen-gatik ordeztu



Ikasle eta irakasleen sentsibilizazioa bultzatu

- Elikaduraren zikloaren inguruko sentsibilizazio jardunaldia egin

Hobekuntza Emaizak



ENERGIA KONTSUMOA

Sarrerako ate automatikoa jarri zenetik, honen jarraipena egin da eta euskaltegia beroago mantentzea ekarri du. Honetaz gain, Berbagunean ere, erabilerak baimentzen duenean panelak itxi egiten dira beroa mantentzeko. 2018an energia kontsumoak zertxobait gora egin badu ere (%7,23), erabilera orduekiko kontsumoak behera egin du %1,05ean.



EROSKETA BERDEA

2018an paper birziklatuaz gain ez da ingurumen irizpideak betetzen dituen bulegoko material gehiagorik erosi.



HONDAKINAK

Euskaltegioko paper kontsumoak gora egin du azken urtean (%9,29 erabiltzaileko paper kontsumoari dagokionez).

Bestalde, urtero bezala berrerabilpena sustatzeko bigarren eskuko azoka antolatu bada ere, 2018an jasotako dirua aurreko urtekoa baino baxuagoa izan da (2017an 511€ eta 2018an 261€). Bertan lortutako dirua JAES elkartera bideratu da, premian dagoen jende-ari laguntzeko.



SENTSIBILIZAZIOA

Ikasleei zuzendutako Zarataren inguruko hitzaldia eman da, bertan 52 ikaslek parte hartu dutelarik. Hala ere, parte hartzaile kopurua aurreko urtekoa baino baxuagoa izan da.

